



AITZIBER LAZKANO ▶ VOITH-GOROSTIDIKO ARRETA

## «Aukera handia da, ia %50ari egokituko zaio etxebizitza bat»

**TOLOSA ▶** Voith-Gorostidin izena emateko epea astelehenean amaituko da

**ESKAERAK ▶** 570 jaso ditu bulegoak; %67a 25-35 urte artekoak dira ▶ 3

VILLABONA ▶

Euskal historiari buruzko ikastaroa antolatu dute

Aritza taldearen eskutik, 26 hitzaldi eskainiko dituzte, ekainera bitarte ▶ 4

IBARRA ▶

Lasturrera egun pasa egingo dute larunbatean herritarrek

Garagardo Azokako antolatzaileek jasotako laguntza eskertu nahi dute ▶ 3



N. URBIZU

## Intxurrek badu nesken taldea

**ALEGIA ▶** Villabonako, Tolosako, Amaroizko eta Alegiko 12 jokalaria ariko dira areto futboleko Gipuzkoako Kopan ▶ 5

hitza  
argazki  
lehiaketa




eman botoa

**BOTOA EMATEKO**

- ▶ P. elektronikoz: [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info)
  - ▶ Telefonoz: 943 65 56 95
- Botoaz gain, datu pertsonalak behar ditugu

**Irabazleak, maiatzak 14 igandeko egunkarian**

Sari  
nagusia



**BIDAIA** paregabe bat zure neurrira

2 laguntzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan



**Bidaia Agentzia bidaide**

[www.bidaide.gruposercor.com](http://www.bidaide.gruposercor.com)

Ernio-bea, 6-behea • 20150 Villabona  
Tel.: 943 692 693  
[bidaide@gruposercor.com](mailto:bidaide@gruposercor.com)

ZOKETA  
APARTAK



**PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE** guztien artean HITZaren motila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira



KULTURA ▶

# 'Hego Amerika motoz, Cheren bidetik' lana ikusgai, Leidorren

Etzi eskainiko dute Angel Cuerdok eta Fabiola Jubinek lau hilabetetan egindako bidaiaren inguruko dokumentala



San Joan egunean iritsi ziren Cuzcoca (Peru), bertan, eguzkiaren festa ospatzen dute. FABIOLA JUBIN

## ESTI EZEIZA

Angel Cuerto tolosarrak, Fabiola Jubinekin batera, bere biziko bidairik luzeena burutu zuen joan den urtean. Lehen-dabizi, Asiako sei herrialdeetan zehar bidaiatu zuten, eta ondoren, Buenos Airesetik irlanda, Hego Ameriketara barna ibili ziren lau hilabetetan. 2005eko martxortik ekainera bitarte egindako ibilbidean, Che Guevarak duela 50 urte inguru egindako bidaia hartu zuten eredutzat. Orain, ostiral honetan, 20:15ean, bidaia honen inguruko *Hegoamerika motoz Cheren bidetik* dokumentala ikusi ahal izango da Leidor Antzokian.

Lehen aipatu bezala, bidaiaren abiapuntua Argentina izan zen, jarraian Uruguaira joan zi-

ren, ondoren Brasilerara. Handik Paraguaira eta gero Boliviara. Hemen izan zituzten arazorik gehienak, Hego Ameriketako herrialderik behartsuenean. Gerra zibil edo estatu kolpearen atariko krisian aurkitzen zen hau, eta momentu latzak igaro behar izan zituzten bertan. Honela, hemendik Txilera igarotzeko, motorra atzean utzi behar izan zuten. Hala ere, gauzak lasaitu zirela irudituz ziztzienean, berriro itzultzea erabaki zuten eta motorrak berreskuratzea. Bisitatutako hurrengo estatua Txile izan zen, eta azkenik, Peru.

Dokumental honetan, Cuerdok eta Jubinek bidaiaren zehar igarotako momentu latzak zein hunkigarriak biltzen dituzte. Estatu bakoitzeko berezitasunak eta errealitateak isladatu.

## 'Diarios de motocicleta'

1951ean, Ernesto Guevara gazteak, amerikar kontinentearen indarrak eta majiaz arduratuta, bere lagun Alberto Granadarekin bidaia bat egitea erabaki zuen. Honekin, motoz, kontinenteko benetako errealitatea ezagutzeko izan zuten helburu.

Bidaia horrek kontrastez eta hunkipenez bete zituen protagonistak. Era berean, Guebararen pentsatzeko modua erabat aldatu zen, eta hortik jaio zen Cheren sen iraultzailea. Egun, mende erdi bat beranduago, Angel Cuerto eta Fabiola Jubinek Cheren pauso eta filosofia berdina jarraitu dute: «utzi munduak alda zaitzan, eta mundua aldatu ahal izango duzu».



Fabiola Jubin eta Angel Cuerto Machu Picchu (Peru). F. JUBIN

ANGEL CUERDO ▶ ABENTURAZALEA

## «50 urte hauetan, oinarrian gauzak ez dira horrenbeste aldatu»

«Urte sabatiko» baten ondoren bizitzeko etapa berri bati ekin diote Angel Cuerto eta Fabiola Jubinek. Joan den igandean guraso izan baitziren. Ondorioz, Fabiolak ezin izan bazen etorri ere, atzo, Hego Ameriketatik barna egindako azken bidaiaren inguruan mintzatu zen Angel Cuerto.

### Zein asmorekin ekin zenieten bidaia honi?

*Diarios de motocicleta* filma ikusi genuenean, Hego Amerikarekin maiteminduta geratu ginen. Hala, duela 50 urte Chek egindako bidea burutzea erabaki genuen. Baina, bere pausoak baina gehiago, bere filosofia jarraitu nahi genuen. Hala, mende erdi honetan gauzak zenbat aldatu diren ikusi nahi izan dugu.

### Zuek ere, legenarrak jotakoak bisitatu zenituzten...

Iñaki Galarraga apaiz zarautzaren pentsatzeko modua erabat aldatu zen, eta hortik jaio zen Cheren sen iraultzailea. Egun, mende erdi bat beranduago, Angel Cuerto eta Fabiola Jubinek Cheren pauso eta filosofia berdina jarraitu dute: «utzi munduak alda zaitzan, eta mundua aldatu ahal izango duzu».

### Nola ikusi zuen hura?

Lehenago ere izanda negoen horrelako zentro batean, Korean, eta hangoak gehiago hunkitu ninduen. Paraguaietan, kaleko egoera horren gogorra zenez, uste nuen, hau, oraindik eta gogorragoa izango zela. Baina ez zen horrela, oso ongi antolatuta zeukaten Galarragak eta gainontzekoek.

### 50 urte hauetan zer aldatu da, eta zer ez?

Legenarrak jotako gaixoen kasuan esaterako, orain dela 50

urte, Amazonian, ia gordeta zeukaten. Eta orain berriz, hobeto daude eta gaixotasunaren garapena etetea ere lortu dute. Nahiz eta zailtasunak izan, bizitzeko gogo handia daukate gaixoek. Baina hori aldaketa ontzat har dezakegu. Bestetik, txarrerako, oinarrian gauzak ez dira horrenbeste aldatu. Gutxi batzuk jarraitzen dute agintzen, eta meategietako langileak esaterako, orain dela 300 urte bezalako egoeran aurkitzen dira.

### Zein izan zen bidaiako momenturik latzena?

Boliviako zalantzarik gabe, herrialdean sartu ginenetik egoera nahiko nahasia ikusi genuen.

### Eta hala ere, bertara itzuli zienten?

Bai, Boliviatik Txilera bizikletan joan ginen, motorrez ezin izan baikenuen atera. Eta egoera baretu zela uste genuenean, itzuli egin ginen, oraindik ez baikenen ohartu horrelako arriskutsua zenik. Itzultzean konturatu ginen.

### Eta hunkigarriena?

Legenarrak jotako gaixoen egoitzan igarotakoa. Jendearen egoera eta errealitatea ikusgarria zen.

### Momenturen batean pentsatu al zenuten bidaia bertan behera uztea?

Ez, inolaz ere ez. Beti genuen motoarekin arazoren bat, eroستا ere asko kosta zitzaigun, paper kontuengatik. Baina, nahiz eta umore jaitsierak izan, ez genuen etsi eta aurrera jarraitu genuen. ◀

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Zaintzailea.** Neska euskaldun bat behar da ume bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefona: 626 47 87 47.

**Tabernaria.** Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. Deitu 635 74 52 91 zenbakira.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Zein dira ikasturte edo lanaldi berri honetarako dituzun erronkak?

**POLITIKA ▶**

## Manifestazioa, Triangulotik abiatuta, gaur, 20:00etan

Gudari Eguna izaki, ezker abertzaleak deitu du «herri honen gudariak omentzeko»

**ERREDAKZIOA**

Ezker abertzaleak deituta, eskualde mailako manifestazioa izango da gaur, Gudari Eguna izaki, Triangulotik abiatuta, 20:00etan, *Izan zirelako, gara* lelopean. Izan ere, «gaur herri honen gudariak omentzen ditugu, Euskal Herriaren alde borroka bizia eman dutenen oroimena goratzen dugu». Bestalde, Tolosako Segik deituta, gaur ordubeteko paroak egingo dituzte ikastetxeetan, «herriaren alde bizia eman duten borrokariak omentzeko aukeraturako eguna baita».

**TELEFONOAK ▶**
**Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
  - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
  - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
  - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
  - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
  - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
  - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
  - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
  - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
  - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
  - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
  - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
  - ▶ **Tolosa.**
    - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroško dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
  - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

**AITZIBER LAZKANO ▶ VOITH-GOROSTIDI BULEGOKO ARRETA ARDURADUNA**

# «la %50ari egokituko zaio etxebizitza bat, eta hori oso aukera handia da»

5 hilabete eta gero, datorren astelehenean amaituko da Voith-Gorostidiko etxebizitza tasatuetan izena emateko epea

**IÑIGO TERRADILLOS**

Pasa den martxoaren 28an behin betiko oinarriak onartu ondoren, maiatzaren 2an ireki zuten Voith-Gorostidi eremuko toki babeseko etxebizitzetan izen-ematea. Orotara, 675 etxebizitza eraikiko dituzte eremu horretan, eta horietatik, 290 toki babesekoak edo tasatuak, 135 babes ofizialekoak eta 250 libreak izango dira. Prezioei dagokionez, tasatuak, 105 metro karratukoak, 192.000 euro inguru balioko dute, hau da, 32.000.000 pezeta. Izen-ematea zabaldu zenetik ia 5 hilabete igaro dira, eta tarte horretan, herritar asko gerturatu dira Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzetan inguruko arreta eskaintze aldera Udalak jarritako bulegotik. Bertako arduradunarekin izan da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA izen emateko epea amaitzeko 3 egun gertatzen direnean.

**Zenbat herritarrek eman dute izena dagoeneko?**

570 eskaera daude jasota. Dena den, horrek ez du esan nahi horiek guztiak zozketan sartuko direnik; izan ere, eskaerak aurkeztu ondoren, datuak egiaztatuz behar ditugu, ea baldintzak betetzen dituen begiratu: diru-sarrerak, etxebizitza jabetzan duen... Beraz, nik uste dut, 45 gutxiago edo, izango direla, azkenean, zerrendan.

**Datorren astelehenean amaitzen da izen emateko epea. Ordutik aurrera?**

Azaroan behin behineko zerrenda aterako dugu. Alegazioak aurkezteko epearen ostean, urte bukaerarako behin betiko zerrendak izatea espero dugu.

**Noiz izango da behin betikoen artean zozketa?**

2007ko udaberriaren egitea espero da. Dena den, oraindik ez dago erabakita.

**570 eskaera jasota daudela esan duzu? Nola banatzen dira adinaren arabera?**

%67a 25 eta 35 urte bitartekoak dira; %20a 36 eta 50 urte bitartekoak; %10a 18 eta 24 urte bitartekoak eta gainerakoak, 50 urtetik gorakoak.

**Familiek, bikoteek ala banakoek emango zuten izena.**


ESTI EZEIZA

**Nola osatzen da zerrenda, nor da gehiengoa?**

Izena eman duten %75a banakoak dira, eta %25a bikoteak. 5 hilabete hauetan herritar ugari joko zuen zuregana zalantzak argitzera izen emateko baldintzen inguruan.

Bai, jende ugari etorri da, eta etortzen ari da. Baldintzetan sartzen diren ala ez da kezka nagusia, eta baldintzen artean, diru-sarrerena. Guk lehendabizi Tolosan erroldatuta dauden ikusten dugu, ondoren diru-sarreraren baldintza (gutxienez 12.000 euro eta gehienez 43.000 euro) betetzen duten, eta azkenik, ea etxebizitza-rik jabetzan duten.

**Epe honetan zer sentsazio jaso duzu herritarren artean. Zer iritzi dago zabaldua?**

Baldintzak betetzen dituzten artean ilusio handia nabari da, aukera handia baita. Jo dezagun azkenean 500 inguru dire-

la eskatzaileak edo behin bitikoz zerrenda osatzen dutenak, kontuan hartuta 290 etxebizitza tasatu izango direla, bitik bati egokitu beharko lekioko, %50ari. Hori oso aukera handia da. Aukera horiek ikusita, jendeak interes handia dauka onartua izango den ala ez jakiteko, eta askok eta askok deitzen dute telefonoz horretarako.

**Izango dira bestelako jarre-  
rak ere.**

Bai, denetarik ikusi dut 5 hilabete hauetan. Zerrendetan sartzeko baldintzetan sartzen ez direnak etsipenaz ikusi ditut.

**ESKATZAILEAK**

«570 eskaera daude jasota orainoz; dena den, horrek ez du esan nahi horiek guztiak sartuko direnik»

**ADINAREN ARABERA**

«%67a 25-35 urte artekoak dira; %20a 36-50 urte artekoak eta %10a 18 eta 24 urte bitartekoak dira»

**ETXEBIZITZAK**

«Izena eman duten herritarren artean, gehinek 3 logelatako etxebizitza nahiko luketela azaldu dute»

Eta horien artean, esaterako, 2006ean lanean hasi direnak. **Zer motatako etxebizitza eskatzen dute izena eman dutenak?**

Udaletxeko bulegora etortzen direnei galdetu egiten diegu dituzten beharren inguruan, eta horrekin, jakin dezakegu zer motatako etxebizitzak behar edota nahi dituzten. Orain arte jaso dugunaren arabera, gehienek 3 logelatako etxebizitza eskatzen dute.

**Noiz hasiko dira etxebizitzak eraikitzen?**

Azaroaren hasieran hasiko dira Voith-Gorostidi eremuko lantegiak botatzen, eta horren ostean ekingo diete etxebizitzak eraikitzeari.

**Oraindik ere izango da etxebizitza tasatuetan izena eman ez duenik, baina astelehena bitarte badago aukera. Zer esango zenioke zalantzak dituen herritar horri?**

Udaletxeko bulegora etor daitezela, gutxienez informazioa jasotzera. Ez daitezela, behintzat, zalantzarekin geratu baldintzetan sartuko zirenen ala ez. Bulegora etorri aurretik 943 69 74 91 telefono zenbakira ere hots egin ahalko dute, edo bestela [www.tolosakou-dala.net](http://www.tolosakou-dala.net) helbidean kontsultatu. Hilabete hauetan guztietan etengabe etorri da jendea, beraz, uste dut izango direla azken unean etorriko direnak ere.

## Iurre Taberna

Berrito ateak zabalitzen ditugu  
Irekiera • gaur • osteguna  
19:00etatik 21:00etara

Asteleheneetik Ostiralera  
goizeko 07:00tan irekitzen dugu  
Iurre auzoa, 1 behe • TOLOSA

## VILLABONA ▶ HISTORIA



Ikastaroan aipatuko den leku historikoetako bat: Amaiurko gazteluaren hondakinak. BERRIA

# Euskal historiari buruzko ikastaroa antolatu du Aritzak

‘Euskaldunon sustraiak eta memoria’ izenburupean, astean behin aditu zein profesionalek 26 hitzaldi eskainiko dituzte

IMANOL GARCIA

Aritzak Kultur Taldeak ikastaro interesgarria antolatu du datozen hilabeteetarako. *Euskaldunon sustraiak eta memoria* izenburupean, antolatzaileek ez dute azterketa historikoetan soilik erori nahi, «gure asmoa eta helburua arbasoen bizimodu jakintzagai ezberdinen begieztu ikustea baita».

Horretarako ikastaro mardula antolatu dute, 26 hitzaldiz osaturikoa eta 15 hizlarien parte-hartzearekin. Euskara, toponimia, antropologia, historia, artea eta beste arlo batzuk ukituko dituzte («gai ezberdinetan jantziak diren aditu eta profesionalek»). Euskal Herriaren historiaurretik hasi eta Francoren diktadura artekoa jasoko dute. Tartean gai orokorrak edo zeharkakoak ere jorratuko dituzte, euskararen historiari buruzkoa edo emakumeek euskal gizartearen izandako pauperari buruzkoa, esaterako.

Aritzak Kultur Taldea berriki osatutako elkarte da, euskaldunon historian murgiltzeko

## DATUAK ▶

### HIZLARIAK

15 hizlarik hartuko dute parte:

- ▶ Mikel Sorrauren.
- ▶ Joseba Asiron.
- ▶ Pello Irazoiz.
- ▶ Iñaki Sagredo.
- ▶ Mikel Belasko
- ▶ Josu Tellabide.
- ▶ Tomas Urzainqui.
- ▶ Alvaro Adot.
- ▶ Jean Louis Davant.
- ▶ Teresa del Valle
- ▶ Lola Valverde.
- ▶ Lartaun Egibar.
- ▶ Jose Maria Lorenzo Espinosa.
- ▶ Josu txueka.
- ▶ Iñaki Egaña.

### MATRIKULA

▶ Bi aukera daude matrikula egin ahal izateko. Batetik, 659

xedearekin. Ikastaro hau antolatzeko lan handia hartu dute, «Euskal Herriaren unibertsitate maila kontuan hartu gabe antolatzen den osoena», azaldu dutenez. Nabarralde elkartearen

31 46 06 telefono zenbakira deituz; eta, bestetik, ondoko helbide elektronikora mezua bidaliz:

aritzak\_@euskalerrria.org  
▶ 60 euroko kostua du matrikulak. Langabetu eta ikasleek 30 euro ordainduko dute. Euskadiko Kutxako 3035 0026 20 0260061500 kontu zenbakian egin behar da ordainketa, izena adieraziz.

### DATAK ETA ORDUTEGIA

▶ Urriaren 2tik hasi eta datorren urteko ekainera bitarte egingo dira hitzaldiak.  
▶ Hitzaldiak astelehenean izango dira, 19:00etan hasita, Villabonako Gurea aretoan. Ordu pare bat inguru iraungo dute.

ren laguntza jaso dute ikastaroa osatzeko.

Matrikula orokorra jarri dute, baina hitzaldi jakin batera joan nahi duenak ere aukera izango du, azken kasu honetan bost euroren truke. Izen-ematea zabalik dago eta datorren astelehenean, urriak 2, egingo den lehenengo hitzaldiren aurretik egin daitezke. Halere, parte hartu nahi dutenek azken unera arte ez itzarroteko eskaria egin dute antolatzaileek, antolakuntza lanak errazteko.

## MUNDUKO PILOTA TXAPELKETA ▶

# Eskualdeko ia guztiak finalerdietan daude

Paleta goman lehiatzen ari diren Urkizu eta Mendizabal kanporaketetan daude

I. GARCIA

Munduko Pilota Txapelketan parte hartzen ari diren eskualdeko kirolari gehienak finalerdietan daude dagoeneko. Oraindik kanporaketan daudenak paleta goman lehiatzen ari diren Maider Mendizabal anoetarra eta Itxaso Urkizu berastegiarrak dira. Atzo jokatu behar zuten hirugarren partida, argentinarren aurka. Oraingoan partida bat irabazi dute Kubako selekzioaren aurka (30-8) eta beste galdu (30-16), Frantziakoaren aurka.

Xare jokalaria, Joxi Lopetegiri eta David Vinuesa irurarrak

gaur jokatuko dute finalerdia. Kanporaketetan, Frantziako selekzioaren aurka galdu egin zuten (27-40) eta Kubaren aurka irabazi (40-24). Asier Mintegi lizartzarra eskuz binakan ari da lehiatzen. Gaur jokatuko du finalerdia ere, hautatzaileak horrela erabakiz gero. Frantziako selekzioaren aurka irabazi egin zuten (22-5) eta Mexikoren aurka galdu (22-16). Azkenik, Igor Odriozola zesta puntalari anoetarra ere finalerdietako sailzioaren aurka (30-8) eta beste galdu (30-16), Frantziakoaren aurka. (35-26) eta Mexikoren aurka galdu zuten bigarrenengoan (35-30).

## ASTEASU ▶ KULTURA

# Haurrentzako antzerkia gaur, zine aretoan

Pilota partidak, ‘Obaba’ filma eta Oinkariren ‘Oroituz’ ere aurtengo Kultur Jardunaldietan

ERREDAKZIOA

Asteasuko Udalak Kultur Jardunaldiak antolatu ditu aurtengoan. Haurrentzako antzerki emanaldia eskainiko du Gorringo taldeak gaurkoan. *Asto bat hipodroman* lana 17:00etatik aurrera emango dute, udaletxeko zine aretoan.

Hurrengo ekitaldia ostiral honetan izango da, esku pilota jaialdi profesionala, hain zuzen. Bi partida ikusteko aukera izango dira herriko frontoian. Lehenengoan, Mendiza-

bal I - Beobide eta Beloso - Escudero lehiatuko dira. Bigarrenengoan, Olaizola II - Begino eta Olaizola I - Beloki. Sarrerak (eserita 20 euro eta zutik 15 euro) salgai daude, kiroldegian.

Urriaren 4an izango da hurrengo ekitaldia. *Obaba* filma eskainiko dute, 19:00etatik aurrera zine aretoan.

Azkeneko ekitaldia urriaren 6an egingo dute. 22:30etik aurrera, Oinkari dantza taldeak *Oroituz* emanaldia eskainiko du frontoian.

## ALEGIA ▶

# Herri bilera egingo dute gaur AHTren inguruan

Herri bilera egingo dute gaur Alegian AHTren inguruan, zenbait herritarrek deituta. Udaletxeko batzar aretoan egingo dute bilera, 20:00etan. Antolatzaileek deialdia egiten diete herritarrei bilera joateko.

## ANOETA ▶

# Tutorearen bisita jasoko dute bihar KZgunean

KZgunean tutorearen bisita jasoko dute bihar, 16:00etatik 20:00etara. Lau ordu horietan *Banaketa zerrandak* izeneko mintegia emango du. Bestetan bezala, interesatuek bertara azaldu besterik ez dute parte hartzeko.

## ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347  
Beotibar Industriegunea, 18 • BELAUNTZA



ARETO FUTBOLA ▶

# Intxurrek neskez osatutako talde berria eratu du Alegian

Villabona, Tolosa, Amaro eta Alegikoak dira hamabiak, eta Gipuzkoako Kopan ariko dira urtarrilaren bukaerara arte



Nesken Intxurre areto futbol taldeko jokalariek batzuk, Alegiko zelaian. N. URBIZU

AITOR SARASOLA ▶ ENTRENATZAILEA

## «Neska hauek gogo, ilusio eta kalitate tekniko handia dute»

Aitor Sarasolak hartu du nesken taldea entrenatzeko ardurara (Alegia, 1978). Lehengo urteetan ere horretan aritu izan da, eta oraingo taldeak duen teknika eta kalitatea ikusita ondo ibiliko direla uste du.

### Bada nesken eta mutilen arteko aldea areto futbolean?

Bai, badira. Potentzia eta indarra ez dira berdinak, mutilek indar gehiago dute: jaurtitzean, potentzia... Mutil baten gorputza eta neska batena fisikoki ez dira berdinak... Baina talde hau indartsua da eta gogo handiak dituzte.

### Ez dituzu neskek oraindik gehiegi ezagutzen, baina zer moduzkoak direla uste duzu?

Inpresioa ona izan da. Lehengo astean bi partida jokatu zituzten Idiazabalaren, lagunartekoak. Bertan Idiazabalgo bi talderen aurka aritu ziren, hiruren artekoak egiten eta biak iraba-



N. URBIZU

zi zituzten. Ordiziakoek kontra beste partida bat egin zuten eta hori galdu bazuten ere, inpresioa oso ona izan da.

### Zeinek proposatu zintuen entrenatzen hasteko?

Patxi Renobales koordinatzaileak komentatu zidan eta proposamena interesgarria iruditu zitzaidan; lehendik ere ibilia naizenez, dena errazagoa da.

**Zer da neska hauek duten onena?**  
Gogoa eta ilusioa. Eta batez ere kalitatea, oso teknikoak dira. Nabaritzen da lehendik ere futbolean ibiliko direla.

### Zer moduz ikusten duzu Alegiko harrobia?

Nahiko zaila. Ez dut uste aurrean eta hurrengo urtean inor hasiko denik. Dena dela, asmo hori daukagu: bi herritar daude Intxurre taldean eta hori ez da asko, baina denborarekin hasiko direla pentsatu behar dugu. Momentuz zaila izango da.

**Ikusleak egongo al dira?**  
Hori espero dugu [kar-kar]. Taldean bi herritar daude soilik, baina nobedadea izanda jendea egotea espero dugu. ◀

### NEREA URBIZU

Alegian bilduko dira aurrean areto futbolean aritu nahi duten neskek, izan ere, Intxurre areto futbol talde berria osatu dute. Hiru urte talderik osatu gabe igaro dira, eta aurrean Alegikoak, Villabonakoak, Amaro eta Tolosakoak daude bertan. Guztiak, 12 neska.

Hilabete oraindik ez daramate elkarrekin; liga hastera doa, eta Gipuzkoako Txapelketan ariko dira, senior mailan. Bertan jubenil mailako batzuk ere badaude, «baina taldea osatzeko beharrezkoak izan dira». 20 eta 27 urte bitartekoak dira, beraz, jokalariek guztiak.

Denak lehen ere futbolean aritutakoak dira: Hegoaldeko jokalariek ohiak, baten bat Tintan ibilitakoa, eta batzuk ere aurrean. Hegoalden ibilitakoek talde hartan izandako esperientzia «ona izan zela» diote, «baina lan gehiegi zen; alde batetik bestera bidaiatzen... azkenean erre egin ginen. Askotan ezin genuen jokatu aulkian geundelako...».

Askorentzat kontraesana izan daiteke, jolastea eta bidaiatzea batera doazela askotan, baina kirolari hauen helburua ez da «horretaz bizitzea eta harengatik dena ematea»; jolastu ahal izatea, baizik.

Beraz, neska hauen helburua futbolean jolastea da, eta batez ere ondo pasatuz. «Lagun arteko giro batean; beste erritmo batekin ibili nahi dugu, kirola ez hain serio hartuta». Hori azaldu zioten TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI, haien arteko giroa lagun artekoa dela agerian utzi zutelarik.

Hauek dira beraien kontra jokatu duten taldeak. Orota- ra, 15 izango dira: Tolosako Laskorain, Orixe Tolosa eta Eskolapioak, Zarautz K.E., Zestoa,

### NESKEN TALDEA ▶

#### INTXURRE ARETO FUTBOLA

**Jokalariek.** Sonia Tome (Tolosa); Leire Lizarralde (Tolosa); Ester Videra (Alegia); Edurne Arrailet (Tolosa); Eskarne Agirre (Amaro); Idoia Garaialde (Amaro); Nagore Abaigar (Villabona); Oihana Arbizu (Tolosa); Edurne Narbaizar (Tolosa); Arrate Martinez (Tolosa); Mirian Prados (Tolosa); Esti Aldalur (Tolosa).

#### Entrenatzailea.

Aitor Sarasola (Alegia).

#### Koordinatzailea.

Patxi Renobales.

#### Lehendakaria.

Aitziber Irazustabarrena.

#### Maila.

Senior.

Zestoa jubenilak, La Salle —Loiola—, Altzakoak, Axular Lizeoa, C.D. Aldapeta, eta Idiazabal Garabi A, B eta jubenilak. Horien artean jubenilen mailako hainbat talde daude, «baina liga eder bat egin ahal izateko beharrezkoa izan da hauek guztiarekin sartzeara».

Talde handitzeko itxaropenak ere badituzte, «futbolearen aritzea bakarrik ez delako: giro onarekin gabiltza hemen. Ez da ezer berezirik behar».

### Jokatzeko, entrenatu

Astean bitan bilduko dira Alegiko pilotalekuan entrenatzeko. Bi astetan behin jokatu dute etxean, frontoian. Beti ostiraletan, 20:45ean. Beraz, etxeko lehenengo partida urriaren 6an izango da. Baina estreinakoz larunbatean jokatu dute La Salleren aurka, Loiolan.

Entrenamenduak «ez dira Hegoalden bezain gogorrak, eta beste erritmo batera egiten ditugu», zioten jokalariek gehienek. «Gainera, entrenatzaileak, Aitor Sarasolak, asko egiten du; bera ere gogotsu dabil».

Intxurre areto futboleko neskei ikusteko eta animatzeko, beraz, hemendik aurrera ostiraletan 20:45ean dute zaleek aukera.

## BIRIGARRO ETA USOTARAKO POSTUEN ENKANTEA ARESON (Nafarroa)

Donostiatik 25 minututara, kotxez postuetaraino joateko aukera. Postuak eginda eta inguruak garbituta.

**1. enkantea**

**Irailak 23 • 19:00etan**

**2. enkantea**

**Irailak 30 • 19:00etan**

**948 510327 • 665 63 96 74**



## IBARRA ▶

**Ibarratik Misisio Taldeak herriari eskerrak emanez**

Pasa den igandean Ibarren burutu zen azokaren harira, Ibarratik Misisio Taldeak dendariei eta tabernariei eskerrak luzatu nahi izan diete laguntza moduan emandako produktuengatik. Baita herriarrei ere, postua bisitatu eta erosketak egiteagatik. Guztira 3.900 euro batu ditu taldeak Ekuador, Honduras eta Eritrean abian dauden proiektuetara zuzentzeko.

## IBARRA ▶

**Kostata, baina Txekorrak badu jabea azkenean**

Aurtengoan ere txekorra zozketatzen zuen txartelak saldu zituzte San Bartolome jailetan. Ez da erraza izan txekorraren jabea aurkitzea, lehenengo zenbaki sariturik ez baitzen agertu. Azkenean, bigarren zenbaki sarituak eraman du saria. Jaione, Txepe, Ruiz, Joxe Ramon, Xabino, Naparra eta Txurrik osaturiko lagun kokadrila izan da txekorra eskuratu duena.



Txekorra, bere zapzi jabe ibartar berriekin batera. HITZA

## IBARRA ▶

**Merezimenduz irabazi zion Ibarrek Durangori**

Larunbatean etxean jokatu du Gasteizko Carnicerias Saenz taldearen aurka

## M. SOROA

Pasa den larunbatean denboraldiko bigarren partida jokatu zuen Ibarrek areto futbol taldeak. Lehenengoan berdinketa egin bazuen ere, bigarrenengo garaipenarekin amaitu zuen; izan ere, 2-3 irabazi zion Durangoko taldeari.

Partida Blanch eta Prados gabe jokatu bazuten ere, «merezitako garaipena» izan zela adierazi du Jose Manuel Tobias prentsa arduradunak, «momentu oro menderatu baikeenuen baloia».

Unai Labaca izan zen partidako lehen sartu zuena lehen minutuan. Atsedendira iristear zegoenean, 1-1ko berdinketa lortu zuen talde aurkariak. Orokorrean, Ibarrek taldea izan zen nagusi partidako lehen zatian eta atsedendira iritsitakoan «partida aurrera ateratzeko gai» zirela uste zuten ibartarrek.

Bigarren zatian ere sendo jarraitzen zuen Ibarrek, defentsari gogor eutsi ziolarik. Hala etorri zen ibartarren bigarren gola Unai Labakaren jaurtiketa gogorraren bitartez. Ondoren, ordea, 2-2ko berdinketa burutu zuen aurkariak defentsa arazo baten eruz. Zortzi minutu falta zirenean, ordea, debutatu berri duen Imanol andoaindarrak garaipenera eman zion Ibarri, partidaren emaitza 2-3koarekin.

## IBARRA ▶ GIZARTEA

# Larunbatean Lasturrera egun pasa joateko aukera herriari

Garagardo Azokan eskainitako laguntza eskertu nahi dute antolatzaileek

## MADDI SOROA

Heldu den larunbatean ondo pasatzeko aukera paregabea eskaini dute Ibarrek Garagardo Azokako antolatzaileek; izan ere, urtero bezala Lasturrera egun pasa antolatu dute azokan laguntzen aritu zirenei eskerrak emateko.

Lasturko irteerari 09:30ean emango zaio hasiera, orduantxe elkartuko baitira denak Kultur Etxean. Tripak ondo betetzeko, gosaria izango da Meagasen, 11:00etan. Handik, Getariara egingo du txangoa autobusak, poteoa egiteko. Lasturren izango du jarraipena egunak, bazkaria izango baita 14:30ean. Bazkal ondoren, zezenen ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da.

Txartelak Zubiaurre, Sendi Ekintza, Atari, Txumitxa eta Karlatzen daude, 23 eurotan.



Iaz ere Lasturrerako irteera burutu zuten; iruditzen, Lasturren bertan eginiko bazkariaren une bat. HITZA

## iragarki laburrak ▶

**Pablo Gorosabel, 40**  
1. pisua - 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel. eta Fax: 943 65 55 87  
mug.: 669 368 994

**Alkiza.** Familia bakarreko txalata salgai, 4.000 m<sup>2</sup>ko lursailarekin eta 120 m<sup>2</sup>ko hiru solairurekin.

**Baraibar.** 2.000 m<sup>2</sup>ko partzelan borda eraberritua salgai.

**Belauntza.** 2. pabiloia salgai, bulegoak, komunak eta abar.

**Belauntza.** Bifamiliarra: bi solairu eta 270 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**Berastegi.** Familia bakarreko etxea salgai. 3.500 m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**Berastegi.** Bi solairuko borda salgai, solairu bakoitza 100m<sup>2</sup>koa. 70.000m<sup>2</sup>ko lursailarekin.

**Hormilla (Errioxa).** Naxeratik

3kilometrotara, txikituriko etxetan azkena. Lorategia, terraza eta pisinarekin. 173.000 euro.

**Tolosa.** Zumalakarregi, 150 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai, egoera onean.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Gela bateko apartamentua salgai. Garajea aukeran.

**Tolosa.** Zabalarratea. Etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, terraza, bainugela, komona, trasteleku eta garajea itxia.

**Tolosa.** San Frantzisko, 75m<sup>2</sup>ko atikoa salgai. Eraberritako.

**Tolosa.** Errementari kalean, 3

logelako atikoa. Egongela, sukaldea, eta bainugelarekin. Berritua.

**Tolosa.** Errementari kalean etxebizitza salgai. Eraberritua. 2 logela, 24m<sup>2</sup>ko egongela, bainugela eta sukaldearekin. Igogailua jabearen esku.

**Tolosa.** Santa Klara, 90 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai. Sukaldea, egongela eta bainugelarekin.

**Tolosa.** Benta Haundin, bi solairuko etxebizitza salgai.

**Tolosa.** San Esteban, kanpora begirako etxebizitza salgai. 100m<sup>2</sup>. Berritu beharrekoa.

**Tolosa.** Aldaba, bi etxebizitzetan bananduriko baseria salgai. Berritako.

**Tolosa.** Maituna zaharra. 15 garaje berri, guztiak itxiak. 30 m<sup>2</sup>tik aurrera. Karga-jasogailuen bitarteko bidea. Eraikitze bidean.

**Tolosa.** Belate. Trasteleku berriak, argia eta aire erazugailuarekin. 9.480 eurotan.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 50 m<sup>2</sup>ko bulegoa alokairuan. Etxebizitza alokairuan. Alokairuan dauden etxebizitzetako inguruko informazio gehiago bulegoan bertan.

IKER GALARTZA ▶ AKTOREA

# «Ez diot sekula utziko antzerkia egiteari»

Eskolan antzerkia noiz egingo zain egoten zen amezketarra; Gasteizen hasi zen antzerkiarekin «gozatzen»

ARRATE EGAÑA - BERRIA

Ez matematikak, ez fisika eta ezta kimika ere; antzerkia egitea zuen gustuko Iker Galartzak txikitari (Amezketara, 1977). Arreta erraz galtzen zuen eskolan, eta Gasteizera Euskal Filologia ikastera joan zenean ere, laster galdu zuen arreta: unibertsitatean baino ordu gehiago igarotzen zituen antzerki eskolan. Egun, Poxpolo eta Mokoloko pailazoaren ikuskizunak —iragan larunbatean, Villabonako Gurea antzokian eskaini zuten emanaldia baliatuz DVD berriaren grabaketa egin zuten—, *Erreleboa* antzezlan eta *ETB2ko Vaya Semanita* saioko lanak ditu esku artean.

**Noiztik duzu antzezteko dohaina?**

Ez dakit dohainik ere ba ote dudan. Nik dakidan gauza bakarra da antzezteko gustatzen zaidala. Txikitatik gustatzen zait antzezteko, eta txikitatik dut antzezteko joera. Eskolan Gabonetako antzerkiak egiten genituen, eta baita ikasturte

amaieran ere, eta guztietan parte hartzen nuen.

**Eskolako zure gustuko ekin-tzak ziren horiek?**

Bai, antzezlaneko paperak noiz banatuko zain egoten nintzen. Maria Jesus Lopez eta Ixiar Orbearekin lantzen genituen antzezlanak. Herodesen papera ematen zidaten. Paperak jaso, eta ikasten eta entsseatzen hasiteko desiratzen egoten nintzen.

**Hori ikastea ez zitzaizun asko kostatzen, beraz?**

Ez, ez, batere ez. Eskolan erraz galtzen nuen arreta. Matematika, kimika, fisika eta horiekin ez nintzen ondo moldatzen. Beste irakasgaietan ez nintzen hain fin ibiliko, baina antzerkia ikastea ez zitzaidan kostatzen.

**Gezur txikiak esateko gaitasunik ba al zenuen?**

Ez nuen abilezia handirik horretarako. Amak berehala antzematen zidan gezurretan ari nintzela.

**Eskolaz kanpo, noiz hasi zinen antzerkigintzan?**

16 bat urterekin, haurrentzako pailazo ikuskizuna prestatzen



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

hasi ginen. Ondoren, Gasteizera joan nintzen, Euskal Filologia ikastera. Antzerki eskola bat bazela jakin nuen, eta ordu gehiago ematen nituen han unibertsitatean baino. Antzerkiarekin gozatzen hasi nintzen.

**Pailazoarena egiten edo gai serioagoetan, non sentitzen zara hobeto?**

Antzezten, edozer egiten dela ere, gustura sentitzen naiz. Askotariko rolak betetzea gustatzen zait. Komediarako gaitasuna duzula ohartzen badira, baina, lan guztiak arlo beretik etortzen zaizkizu

**DI-DA BATEAN ▶**

**Uda ala negua?** Negua.

**Zenbaki bat?** 17 zenbakia hautatzen dut.

**Kolore bat?** Berdea.

**Animalia bat?** Zaldia.

**Aktore bat?** Josebat Usabiega.

**Pertsonaia bat?** Porrotx.

**Telebista edo antzerkia, zer duzu nahiago?**

Antzerkia egiteari ez diot sekula utziko, horrek ikaragarri betetzen nauelako. Herriz herri

ibiltzea, saioa egitea, jende berria ezagutzea, zuzeneko txalok... Horrek ikaragarri balio du. Kamera aurrean, aldiz, bakarrik zaude, baina jende gehiagok ere ikusten zaitu. Telebistak, oraingoz, gehiago ziurtatzen du eguneko ogia.

**Zein dira ikusle fidelenak?**

Heldua krudelagoa da. Helduek beti gauza berriak behar dituzte, nota jartzen dizute, beti daude kritikatzeko prest. Haurra beroagoa eta gozoagoa da, eta beti begiratzen dizu miresmen pixka batekin.

**ANTZEZTEA**

«Txikitatik gustatzen zait antzezteko; eskolan, antzezlanetako paperak noiz banatuko zain egoten nintzen»

**IKUSLEAK**

«Ikusleen artean, haurre beroagoa eta gozoagoa da, eta beti begiratzen dizu miresmen pixka batekin»



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo





**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** 20:00etan, AHTren inguruko herri bilera, udaletxeko batzar aretoa.

**Belauntza.** *Bilatu lan bat* mintegia izango da KZgunean, 10:00etatik 12:00etara.

**Irura.** San Miguel jaien baitan, ezkonduen bazkarian ludoteka zerbitzua antolatu dute, hilaren 30ean, 14:30etik aurrera.

Interesatuak, izena eman behar dute liburutegian, ludotekan edo udaletxean.

**Tolosa.** Sanatana Dharmaya yoga eskolak antolaturiko Kontzientzia Globalari buruzko VII. Jardunaldien baitan, *Soinuaren boterea* mantra tailerra, 09:30etik 11:30era eta 17:00etatik 19:00etan yoga eskolan. Eta, 20:00etan, Kultur Etxean, Manuel Paz Macazagaren *Izan: Barne bakean egotea* da hitzaldia.

**Tolosa.** Haurren katekesirako izen-ematea, Santa Maria parrokiari, gaur eta bihar.

**Tolosa.** 20:00etan, Triangulo plazatik abiatuta manifestazioa, *Izan zirelako*, gara lelopean, Gudari Egunean.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Lanbroa tabernan Charo Berraren artelanak ikusgai, hilaren amaierara arte.

**Alegia.** Patxi Tenak Kubako plastika eskola batetik ekarritako artelanak ikusgai, Jubilatuen tabernan, urriaren 4ra arte. Lortutako dirua Kubara bideratuko da.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

Leizta. Erbiti, 0. Lizarraga, 7. 112.

Tolosa. Santa Maria, 1. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

**IRRATIA**

**Txolarre irrati**

(107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa

magazina: eguraldia Jose Landarekin,

Hitzaren errepassoa, elkarrizketak, ,

agenda, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa,

Añoeta Herri Ikastolako DBHKo

1. eta 2. mailako ikasleen saioa.

21:00-22:00. *Zaharrak berri.*

22:00-23:00. *Street.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Azkuek eskainitako kontzertuaren une bat. HITZA



Ramon Beristain, Felix Azurmendi eta Jose Manuel Azkue. HITZA

# 50 urte bete bizipen

**VILLABONA ▶** Duela 50 urte bere lehen meza eman zuen Ramon Beristain apaizak eta organo-joleak; hori dela eta, omenaldia egin diote herrikoideek

**ERREDAKZIOA**

**R**amon Beristainek bere lehen meza eman zuenean 1956. urtea zen. Villabonan. Eta ez dira, ez, alferriki igaro 50 urte horiek. Hala, bere urrezko ezteietan, Jesusen Bihotza parrokiako apaiz eta organo-jolea gogoan izan zuten bere herrikoideek, omenaldi berezi batekin.

«Oso egun ederra igaro genuen», azaldu du Xabier Iturriz apaiz laguntzaileak. Irailaren 17an egin zioten omenaldia, hain zuzen, eta mezarekin ekin zioten ospakizunari. Meza hau zuzentzearen ardura Felix Azurmendik hartu zuen. Meza aurretik Jose Manuel Azkue or-



Beristain, omenaldian jasotako oparia eskuan duela. HITZA

gano-joleak bere lanaren pieza bat jo zuen eta, ondoren, kontzertu berezia eskaini zuen. Harekin batera, Eresargi Villabonako Abesbatza aritu zen. Txomin Garmendia dantzari eta bertsolaria ere bertan izan zen.

Behin emanaldia amaituta, autobusa hartu eta Amasako Arantzabi jatetxean bildu ziren ehun lagun inguru, bazkari legerako. Bertan, ez ziren falta opariak Beristaintzat. Udalak koadro bat oparitu zion, eta parrokiaren izenean plaka bat eta musika klasikoa biltzen duen CD bat jaso zituen. Egundak hain zuzentzat eta, batik bat, Ramon Beristain apaiz eta organo-jolearentzat.

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leiztan Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...